

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012ko ekainaren 1a. IX. urtea. 2.360. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Txotxongiloen Munduko Biltzarraren eta Jaialdiaren egoitza izango da Tolosa

Donostia 2016rekin batera aurkeztutako hautagaitzak, Unimako ordezkarien boto gehien jaso ditu egun hauetan Chengdu-n (Txina) ospatzen ari diren biltzarrean

Ibai Iriarte alkateak «Tolosa mundura begira» jarriko duela nabarmendu du; Topic zentroko Idoia Otegi zuzendarikideak, berriz, «amets batean» daudela dio **02**



Iriarte, Urgell, Goenaga, Otegi eta Otxoa Txinan, hautagaitza lortu zutela jakin ondoren. HITZA

Europa erraustegien kontra azaldu izana txalotu du Bilduk

Tolosako alderdiaren ustez, erabaki honek herria norabide onean doala adierazten du **05**

Txondorra piztuko dute Ixkibarren

Leitzako kultur aroaren barruan egingo dute astelehen arratsaldean **07**

Lehen aldiz ariko dira segan ohiko eran, Amasan

Emakumezkoen Sega Txapelketa hartuko du Arratzainek, igandean **03**



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

ingeleraz ere bai

ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

AURREMARIKULAK Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mekanizazioa
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Informatika
- Automatizazio eta Robotika industrialak
- Administrazio eta Finantzak
- Metal eraikuntzak



Ordezkarri guztiek «oso pozik» azaldu dute beren burua. HITZA

Tolosan izango da 2016ko Txotxongiloen Munduko Biltzarra eta Jaialdia

Tolosa-Donostia hautagaitza Chengdu-n (Txina) aukeratu dute, Unimako ordezkarien aldeko 67 botorekin

Itzea Urkizu

Tolosak hartuko ditu, 2016. urtean, Txotxongiloen Nazioarteko Unima elkarteak lau urtez behin antolatzen dituen Txotxongiloen Munduko Biltzarra eta Jaialdia. Aurtengo biltzarra Chengdu-n (Txina) ospatzen ari dira, eta bertan aukeratu zuten, atzo, Tolosa-Donostiak elkarlanean aurkeztutako hautagaitza, aldeko 67 boz-karekin.

Tolosa-Donostia 2016 hautagaitza aste betez defendatu duen ordezkaritzaz gain, azken egunotan Txinara bidaiatu dute Ibai Iriarte Tolosako alkateak, Topic-eko zuzendarikide eta Unima Federación Española lehendakaria den Idoia Otegi, Donostia 2016ko proiektu zuzendaria den Igor Otxoa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendari Aizpea Goenaga eta Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua Blanca Urgell.

Tolosarekin lehian, Errusiako Jekaterinburg hiria izan zen atzo, Txinan. Unima elkarteak munduko hainbat herrialdetan dituen ordezkariek egin zuten aukeraketa, eta errusiarrek jasotako aldeko 29 botoen aurrean, 67 boto eskuratu zituen Tolosako hautagaitzak.

Idoia Otegi azaldu duenez, aurkezpen berezia prestatu zuten Chengdu-erako: «Bideo berezi bat prestatu dugu, eta bertan, txotxongilo bakarti baten ametsa ikus daiteke. Zenbait arazo eta komerziaren ondoren, txotxongiloa Tolosara iristen da».

Ikus-entzunezko baliabideekin batera, euskal ordezkarri guztiek ere parte hartu zuten hautagaitzaren aurkezpen ekitaldian, hemengo eskaintzaren berri emateko.

Ibai Iriartek «oso urduri» zeudela nabarmendu du: «Amaitu dugunean jendeak eskertu du, eta ez gara esku hutsi itzuliko, gainera. Oso polita izan da 14 milioi biztanleko hiri batean Tolosa erakustea. Azken finean, gure herria, Tolosa, Gipuzkoa nahiz Euskal Herria, munduko mapan jarriko ditu honek, eta Tolosa bera mundura begira ere bai; gure kul-

tura eta hizkuntza ere munduko mapan izango dira, izan ere, Unimako 84 herrietako ordezkariez gain, txotxongiloen esparruko sarean zabalduko da gure herria».

«Amets batean bezala»

«Oraindik laino batean gaudela uste dut, ezin sinetsita», dio Topic-eko Idoia Otegi. Izan ere, atzo hautagaitza aukeratua izateaz gain, joan den astean ere Europa-ko lau museo onenen artean kokatu zuten Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa: «Unimako biltzarra eta munduko jaialdia Tolosara ekartzek, gure lana sarritu du, eta hemen egiten ari garenen aitortza moduko bat da, mundu osoko txotxongilolarren aldetik».

Unimaren biltzarra lehen aldiz ospatuko da Tolosaren ezaugarriak dituen herri batean, eta «harror egoteko moduko» dela azpimarratu du Otegi.

Oraindik lau urte geratzen diren arren, lanean hasteko gogoz dira jada, eta aurreratu dute, *Atzoko Handia* txotxongiloen ipuin musikatu, nahiz Surfider Foundation Europekin batera, hondartzetan jasotako hondakinekin txotxongiloak egiteko proiektua izango direla 2016ko Txotxongiloen Munduko Biltzarreko eta Jaialdiko egitarauan.

Lakuntzan ariko dira Tolosako klarinete jotzaileak

Musikaren historiari «errepaso txiki bat» emango diote, emanaldi pedagogiko bat eskainiz

I. Urkizu

Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolako zenbait ikaslek klarinete kontzertua eskainiko dute igande honetan, Lakuntzako (Nafarroa) Kulturille egitarauaren barruan.

Lakuntzako San Salvador elizan izango da emanaldia, 13:30ean, eta arduradunek azaldu

duenez, «ez da nolabanahiko kontzertua izango». Beren asma musikaren historiari «errepaso txiki bat» ematea da.

Horrela, beraz, XVII. mendeko Purcell-ekin hasi, eta Lou Bega-ren *Manbo n°5*-eraino, klarinete jotzaileek obreei eta egileei buruz ere hitz egingo diete bertaratuako entzuleei. Modu honetara, adin guztiei begirako kontzertu pedagogiko desberdina eskainiko entzuleei. Modu honetara, «Badi-rudi kontzertu pedagogikoak umeentzako soilik direla. Gure emanaldiarekin, entzuleek kontzertua amaitu ondoren musikari buruzko informazio eta datu berriak izango dituzte».



Kontzertu pedagogikoa eskainiko dute musikariek. HITZA

Hainbat kirol gertutik ezagutzeko aukera izango da igandean

I. Urkizu

Kirolari Ateak Zabalik izenburupean, 10:30etik 13:30era bitarte, Oria ibaian nahiz Usabalen hainbat kirol ezagutzeko aukera izango da heldu eta gazteentzat.

Ibaian, arrauna, piragua eta arrantza egin ahal izango da, eta pedaloak ere jarriko dituzte. Usabalen, trialsina, patinaia eta skatea izango dira protagonista.

15 lorazainek beren postuak jarriko dituzte, bihar, Trianguloa plazan

I. Urkizu

Trianguloa plaza lore eta landaren beteko da, biharko Lore eta Landare azoka dela eta. Astero-astero Berdura plazan egoten diren postuez gain, beste 15 postu berezi izango dira, eta askotariko landare espezieak eskuragarri izango dituzte bertaratuak: bonsaiak, landare jangarriak, sendabelarrak, kaktusak, lore lehorrak, landare ekologikoak, exotikoak...

Artisauen erakusleihoa

Lore eta landareekin batera, ordea, urteroko artisautza azoka ere San Frantzisko pasealekuan izango da, askotariko artisautza produktuekin: larrugintza, beira, egurrezko jostailuak, xaboi naturalak, ... Gaur 17:00etan zabalduko da. Bihar egun oso izango dira bertan, eta etzi, berriaz, 14:30ean amaituko da azoka.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Asteburuetan eta jai-egunetan eguerdiz lan egiteko, esperientziadun zerbitzaria behar da, Lekunberrin dagoen jantoki baterako. Interesatuak, deitu 659 015247 telefono zenbakira.

ALOKAGAI

■ **Apartamentua alokagai.** Jacean eta Peñiscolan apartamentua alokairuan eskaintzen dugu uda honetarako. Interesa duen edonork, dei dezala 635 73 70 43 telefono zenbakira, informazio gehiagorako.

Intxurreko infantil mutilek Kopako finala jokatu dute Gure Txokoaren aurka

Bihar 12:00etan izango da partida, Donostiako Matigoxategi zelaietan; infantil mailako neskek finala galdu dute

Eneritz Maiz Alegia

Futbol denboraldia amaitzen ari da Intxurreko futbol jokalariek guztientzat. Infantil mutilek, ordea, Gipuzkoa Kopako finala jokatu beharko dute, bihar. Donostiako Gure Txoko taldearen aurka jokatu dute, eta partida 12:00etan hasiko da. Matigoxategi zelaietan izango da.

Neska intantilek, berriz, aste bat lehenago jokatu zuten finala Urrietako taldearen aurka, eta 8-0ko emaitzarekin galdu egin zuten. Oso giro ona izan zen partidaren, eta jende asko joan zen Alegiako neska futbolariak animatzera. Intxurre elkartetik adierazi dutenez, «finala jokatzera iritsi dira, eta partida galdu arren, jokalariek oso ondo hartu zuten porrot».

130 bat lagun, zahagi ardoan

Pasa den larunbatean egin zuten denboraldi amaierako festa, herriko plazan. 130 bat lagun elkarrekin ziren afaltzeko. Futbol jokalariek gain, Intxurre elkartereko kideak, lagunak eta familiako kideak elkartu ziren.



Denboraldi amaieran, afariaren gain, sariak banatu zituzten. PATXI RENOBALES

Azken urteetako ohiturari jarraituz sariak banatu zituzten. Alde batetik, Calcinorrek emandako kamisetak izan ziren guztientzat, eta beste aldetik, Garialde iturgintzak emandako erlojuak banatu zituzten maila bakoitzeko jokalarien artean.

Hauek izan ziren sariak jasotzen zuten futbolariak: preferente

mailan, Julien Aranburu; jubenil mailan, Mikel Oiarbide; kadeteen mutilen mailan, Unai Llamas; kadete nesketan, Maialen Senperena; infantil mutiletan, Aratz Irazustabarrena; eta infantil neslojuak banatu zituzten maila bakoitzeko jokalarien artean.

Hauek izan ziren sariak jasotzen zuten futbolariak: preferente

Gipuzkoako Emakumezkoen Ohiko Segatxapelketa jokatu da, etzi

Amasa-Villabonako lurretan jokatu da lehen aldiz antolatutako txapelketa hau; 12:00etan hasiko da

E. Maiz Amasa-Villabona

Igandean, hilaren 3an, Gipuzkoako Emakumezkoen Ohiko Segatxapelketa jokatu da. Amasa-Villabonako Arratzainen izango da, eta 12:00etan hasiko dira hiru emakumeak segan.

Igaro Balda Hernialdekoa, Alatzene Etxeburua Zizurkilgoa eta Arrate Garin Legorretakoa ariko dira nor baino nor. Lehen aldiz jokatu da ohiko modalitatean egingo den emakumeen txapelketa hau. Hogei minututan



Igaro Balda, segan. HITZA

ahalik eta belar gehien moztea izango da egin beharreko lana. Kilorik gehien mozten dituen emakumearentzat izango da lehen txapelketa honetako txapela. Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak antolatutako txapelketa.

Segalari bakoitzak bere lan taldea izango du: zorroztaile edo laguntzailea, pikatzailea, pisuan bi lagun eta eskuarearekin hiru la-

gun arituko dira, segalariek mozta belarrak biltzen. Ohiko sega modalitatean ez dago inongo erreferentziarik. Lan polita egitea izango dute helburuen artean hiru segalariek.

Izen ematea bukatzeaz

IV. Euskal Herriko Bakarkako Segatxapelketa izen ematea igandean bukatuko da. Izena eman nahi duenak, almitzasega@yahoo.es helbidera idatzi edota 615 74 34 11 (Tomax) telefono zenbakira deitu beharko du. Almitzak antolatzen du segatxapelketa, eta Tolosako saioa hilaren 17an izango da. 11:00etan sailen eta txanden zozketa egingo da, eta 11:30ean ekitaldia hasiko da. «Gazte eta gaztetxoek luza nahi diegu bereziki animatzeko deia», diote Almitzatic.



Hainbat auto ikusteko aukera izango da goizean zehar, plazan. HITZA

Auto zaleak bigarren ibarran elkartuko dira

Bihar 09:30etik aurrera elkartuko dira Ibarako San Bartolome plazan; egun oso festa izango dute parte hartzaileek

Erredakzioa Ibarra

Auto lasterketako zaleen bilgune izango da Ibarra larunbat honetan. Bigarren urte jarraian antolatuko dute KDD Eguna.

09:30ean jarri dute hitzordua, eta guztiak Ibarako San Bartolome

me plazan bilduko dira. Hainbat auto ikusteko aukera izango da.

Auto lasterketetan ibiltzekin diena elkartzeko helburuarekin antolatzen dute eguna. Elkar ezagutu, lasai hitz egin eta esperientziak trukatzeko eguna izango da auto zaleentzat. Jarraian, ibilbidetxo bat eginez bazkaltzera elkarrekin joango dira. Ondoren, kart autoetan ibiltzeko aukera izango dute guztiak.

Informazio gehiago nahi duenak, www.maskarreras.com webgunean aurkituko du.

• ibarraldea@hitza.info

Eskolako haurren jaialdia izango da, gaur

E. Maiz Albiztur

Albizturko eskolako haurrek, gaur, 19:00etan eskolako jaialdia izango dute. Herri guztia gonbidatu dute ekitaldia ikustera joateko, eta udaletxeko kultur aretoan izango den emanaldirako ate guztiak zabalik egongo dira.

Bertaratuei ongi etorria rap

doinuekin egingo diete. Ondoren, 2 urtetik hasi eta 12 urte bitarteko ikasleek *Ikasgela* izeneko antzerkia egingo dute. Adinaren arabera taldeak eginda, dantza eta musikariek ere ez da faltako.

Tartean, ikasturtean zehar aterako argazkiekin osatutako bilduma eskainiko dute.

• alegialdea@hitza.info



Irurako Udala

IRACARKIA

Honakoaren bidez jakinarazten da, Irurako Udalak Ametsa Udal Trinketeko Taberna zerbitzua kontratatzea erabaki duela. Kontratuan nabarmentzeko ezaugarriak hauek dira:

- Zerbitzua gauzatzeko epea: 5 urte, urtebeteko probarekin.
- Urteko gutxienezko kanona: 6.000€ (BEZ barne).
- Eskaintzak aurkezteko epea: 2012ko ekainaren 11 arte, hau barne.
- Aurkezteko Lekua: Irurako Udaleko bulegoak.
- Dokumentazioa eta informazioa: Irurako Udalan eta kontratazioaren profilean (www.irurane.net).

Iruran, 2012ko maiatzaren 22an.
ALKATEA

Ibilaldi lasaia egiteko aukera ematen du Asteasuko Elizmendi auzotik Zizurkilgo Elbarrena auzoraino doana. Zizurkil Goiko plaza bitarte batez ere, naturaz eta paisaiaz ederki gozatu daiteke.

Zalduko zelaietatik barrena

Imanol Garcia Landa

Tolosaldeak baditu ingurune aski ezagunak, eta beste batzuk ezkutuan daudenak. Azkenetako da Asteasuko Elizmendi auzotik Zizurkil Gora bitartean dauden Zalduko zelaiak.

Ibilaldia Asteasuko autobus geltokitik hasiko dugu. Aiara doan errepidea gurutzatu ondoren (kontuz autoekin), Agoteenea etxearen eskuinetik hartu eta Elizmendirantz jo behar da. Agerrebekoa eta Agerremendi baserrien aurrean dagoen panelak erakusten duenez, tartetik doan bidea hartu behar da, Amusiturri baserrira iristeko.

Bide hori hartzerakoan pixkana naturan murgiltzen garela sentituko dugu. Begien aurrean berdea izango da nagusi. Behin Amusiturri baserrira iritsitakoan, azpitik doan pista jarraitu eta ezkerreara egiten duena hartuko dugu, Amusiturri erreka gurutzatzeko. Ingurune lasaia da.

Erreka gurutzatu ondoren hasten da ibilbideko aldarrik pikoena. Hori bai, ez da oso luzea, eta aldaparen bukaerara iristean ikusten den pasaiak merezi du esfortzua. Aldapak Sagargatzegi baserri azpiraino eramaten du, eta hor bidea ezkerretara hartu behar da. Berehala, Zalduko zelaiak agertuko dira, aldaparen bestaldean. Horixe izango da ibil-



Zalduko zelaiak, Unbaranbe baserritik gertu hartutako ikuspegitik. I.G.L.



Ezkerreko irudian, Elizmendiko eliza, Zalduko zelaietatik begirituta; eskuinekoan, Donemiliagako Zimiterioa. I.G.L.



bidearen hurrengo zatia. Aurretik, baina, Unbaranbe baserri aldera goazela, Elizmendi auzoa agertuko zaigu begien aurrean, eta urrutiago eta ezkerreago, Larrraul. Eguraldiak laguntzen badu, Larraulen gainean Ernio mendia eta bere mendilerroa ikusteko aukera izango dugu.

Unbaranbe baserrira iritsi aurretik, eskuinera eta behera doan bidezidorra hartu behar da, Zalduko zelaietara. Ereku zabala eta lasaia dira Zalduko zelaiak. Hauek zeharkatu ondoren, Zaldu baserri parera iritsiko gara. Zizurkildik datorren bidea eskuinera hartu eta emeki-emeki Zizurkil Goiko plazara iritsiko gara. Bertan dago Donemiliaga eliza eta bere Zimiterioa. Azken honek pilotalekua du eta askotan izaten da herritarren topagune.

Elizaren aldamenetik igaro eta Elbarrena auzora doan errepidea hartuko dugu (kontuz autoekin). Ezkerretarako zenbait etxe ikusiko ditugu, eta tartean San Migel basiliza. Alde horretara egingo dugu, eta gero eskuinera hartuko dugu errepidearen paralelo doan pista. Berriz bat egingo dugu errepidearekin, eta behin bidegurutzerira iristerakoan, eskuinera hartuko dugu, Zizurkilgo Elbarrena auzoan sartuz. Biribilgunera iristerakoan, Villabonarantz hartuko dugu. Trenbide azpitik igaro ondoren, eskuinera joan eta tren geltokira helduko gara.

FATXI JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA

Noaua !!

www.noaua.com


DATUAK

- **Luzera.** 5.400 metro.
- **Ezaugarriak.** Joana.
- **Hurbilketa.** Aldiriko Renfe trenen Villabonara eta gero autobusean.
- **Hasiera-bukaera.** Asteasuko tren geltokitik Villabona-Zizurkil tren geltokira.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak, bat pikoak.
- **Azalpenak.** Bi herri horien arteko bailaratik ibilaldia.
- **Interesguneak.** Zizurkil: Donemiliaga eliza eta Donemiliaga oinetxea. Naturgunea.

Plaza Etxeberri
J A T E T X E A

Pedro Mari Otaño Plaza
943 69 19 36
Zizurkil

www.plazaetxeberrri.com



TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra

FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA

Tel.: 943 67 36 29

www.inmakuladatolosa.com

Tolosako Bilduk zero zabor filosofiarekin egin du bat

Estrasburgon erraustegi eta zabortegeiak debekatzearen alde hartutako jarrera ekarri du gogora, agerraldi batean. Zentzu honetan, Eider Olazar Elduainenek azaldutakoaren arabera, «Europako Parlamentuak ere etorkizuna non dagoen argi eta garbi azaldu du». «Ebazpena 2020rako erraustegi eta zabortegeiek gradualki desagertu behar direla adierazten du, eta Europar Komisioari 2014 baino lehenago ekimen legalak hartzeko eskatu dio. Europarlamentariaren arabera, hondakinak lehengaiak dira, eta Europako ekonomia suspertzeko birziklapena lehenetsi behar da», gaineratu zuen.

Rebeka Calvo

Tolosako Bilduk Europako Parlamentuak berriki erraustegi eta zabortegeiak debekatzearen alde hartutako jarrera ekarri du gogora, agerraldi batean. Zentzu honetan, Eider Olazar Elduainenek azaldutakoaren arabera, «Europako Parlamentuak ere etorkizuna non dagoen argi eta garbi azaldu du». «Ebazpena 2020rako erraustegi eta zabortegeiek gradualki desagertu behar direla adierazten du, eta Europar Komisioari 2014 baino lehenago ekimen legalak hartzeko eskatu dio. Europarlamentariaren arabera, hondakinak lehengaiak dira, eta Europako ekonomia suspertzeko birziklapena lehenetsi behar da», gaineratu zuen.

Horiek horrela, Tolosako Bilduk «Tolosa norabide onean» dola azaldu zuen: «Gure aldetik esan behar dugu, Gipuzkoa osoan bezala, Tolosan ere norabide onean goazela, eta udal zein mankomunitateetan zentzu horretan pauso ugari ematen ari garela».

Alderdi politikoak ez Tolosan, eta ezta Zubietan ere, ez dela erraustegirik eraiki behar nabarmendu zuen, eta horretarako «oso begi onez» ikusten



Lopez de Mendizabal, De los Rios, Olazar eta Izagirre. I. GARCIA LANDA

du Europako Parlamentuak hartutako erabakia.

Zergatiak

Erraustegia eraikitzearen kontra egoteko arrazoiak ere azaldu zituen Bilduk: «Gure osasunerako onena delako, Europa eta Gipuzkoako ekonomiarako onena delako eta, azken finean, zentzuzko erabakia delako».

Izan ere, errauskailuak oso garestiak direla esan zuten eta baita lehengaiak erretzen dituela ere, eta hortaz, «hondakinak erretzen baditugu ez ditugu berriro ziklo ekonomikoan sartuko, eta dirua galtzen egongo gara». «Birziklapenean oinarritutako ekonomiak sekulako aukerak ematen ditu Gipuzkoako ekonomia suspertzen laguntzeko, eta krisi sistemikoko egoera honetan ezin dugu aukera hau alperrik pasatzen utzi», gaineratu zuten.

Tolosako Bildu gaikako bilketa eta birziklapenaren aldeko apustuekin egin zuen bat, arazoa ezin baita «alfonbraren azpian

gorde. Hondakinak kudeaketa arduratsua egitea beharrezkoa da, eta zikloan berriz sartu».

Tolosaldeko egoera

Tolosaldeari dagokionez, alderdiak eskualdean ere %80 birziklapen tasak lortzeko lana egin behar dela esan zuen, «goazen adostera ea nola lortzen dugun».

«Gipuzkoan, dena, 88 herrititik jada 52 ari gara etorkizunera begira eta, laster, seguru asko, beste asko etorriko dira, gauzak ondo egin nahi ditugulako», gaineratu zuten. Horiek horrela, 2013. urtean zehar, gaikako bilketa Tolosako etxebizitza, denda, merkatalgune eta enpresentzat betebeharrak bilakatzeko bidean jarri nahi dute: «Modu honetan zero zabor filosofiarekin erabat txertaturiko ekimena izango da geurea. Zaborren arazoa ez da estetiko batzuk ikusarazi nahi ditugun moduan. Herritar guztioi eragiten digun osasun, ekonomia eta ingurumenarekin lotutako arazoa dugu».

Larramendi Bizirik jai egingo du hilaren 9an

Etorkizuneko Larramendi irudikatuko dute jaiak; auzotar guztiak gonbidatu dituzte

Imanol Garcia Landa

Larramendi Bizirik elkarteak batzar irekia egin du kultur etxean, Larramendi auzoaren etorkizunari buruzko bere ikuspegia emateko, eta bertan ekainaren 9rako festatxo bat antolatu dutela azaldu dute. Jaiak auzoan bertan izango dira eta etorkizuneko Larramendi irudikatuko asmoa dute. Horretarako, batzarrean orri batzuk banatu zituzte, eta horietan bakoitzak auzoa nolako auzo nahi duen marrazteko gonbita

egin dute. Ekainaren 9an auzotar guztiak joateko deialdia egin dute, bai proiektu batean edo bestearen alde daudenak. Baimena eskatu dute obrak babesteko egun jarrita dauden hesiak margotzeko, hau da, aurretik orrietan irudikatu dena bertan jartzeko.

Batzar irekian, auzokideekin eta, oro har, herritarrekin, zuzenean elkarbanatu nahi izan dute auzoari buruzko bere iritzia, eta ekainaren 16an egingo den kontsultaren harira, lurperatzearen proiektuaren aurka zergatik dauden azaldu dute. Elkarteak gonbita egin du auzotarrei informatzeko eta kontsultan parte hartzeko. Elkarteak kideekin behin eta berriz nabarmendu dute «lotarako auzorik» ez dutela nahi, eta hori ez gertatzeko B proiektuaren alde egiteko eskaria egin dute.

→ Laburrak

Koadrila Eguneko txartelak erosteko aukera

GIZARTEA Tolosako San Joan jaietako Koadrila Eguneko txartelak erosi daitezke jada. Lehen eguna gaur izango da, Orbela tabernan, 19:00etatik 21:00etara, eta bihar ere 11:00etatik 12:00etara erosi ahal izango dira 5 euroren truke. Bazkaria joateko baldintza bat jarri dute aurten: 16 urtetik gorakoak bakarrik joan ahalik direla, Euskal Herria plazan kopuru batetik hurrera arazoak egongo direlako.

Ildo estrategikoak azalduko ditu aldundiak

GIZARTEA Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunak Tolosan izango dira hilaren 4ean, aldundiaren ildo estragikoen berri emateko. Herritar guztiak gonbidatu dituzte 19:00etan, Hirukide ikastetxeko egoitzara (San Frantzisko, 12. zenbakia) azaldu eta ekarpenak egitera.



Laser Promozioak: Ekainaren 4tik 16ra

Besapeak abonua 5 sesio:

195 €

SHUYANA
ESTETIKA

ESTETIKA: Eskolapioetako
Lorategiak 3, 1A. T. 943 675 489
KOSMETIKA:
Korreo 1. T. 943 671 468



Ezenarro

SAN FRANTZISKO 26, Behea
20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 85 36

ezenarro[s]@hotmail.com

GARMENDIA OTAOLA 3, Behea
20200 BEASAIN
Tel.: 943 08 42 02



PVC • ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA • AROZTEGI MISTOA • POLIURETANO • BARANDAK • HORMA-ARMAIRUAK



Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako haurrak ikasturte amaierako jaialdian. HITZA

Jesusen Bihotzako ikasleek ikasturteari agur esateko jaialdia egingo dute, bihar

DBH 3. mailako ikasleek tonbola eta pintxoak jarriko dituzte, ikasturte amaierako bidaia ordaintzeko

Asier Imaz

Jesuen Bihotzako Zizurkil eta Villabonako ikasleek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute hilaren 2an, bihar. Egun guztiko egitaraua prestatu dute.

Bi herrietako herritar guztiak gonbidatu dituzte arratsalde pasa ederrera.

Ekerrak eman dituzte

Antolakuntza lanetan guraso elkarteak, irakasleak, ikasleak eta Amasa-Villabonako Udala aritu dira, eta Jesusen Bihotzatik guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie, eginiko ekarpenik

↓ Egitaraua

EKAINAK 2, BIHAR

- **16:00etan.** Esku pilota eta frontenis partidak Behar Zana pilotalekuan. Futbol partidak, aldiz, Txerminen.
- **16:00etan.** Mus, Toka eta Xake txapelketak Txerminen.
- **16:00etan.** Herri krosa hasiko da.
- **16:30etik 18:00etara.** Ikasle-en ikuskizuna.

gabe, etziko jaia gauzatzea ezinezkoa izango litzatekeelako. Ikasturte amaierako egitarauaren gune nagusia Txerminen egongo da.

Horrez gain, ikastolatik azaldu dutenez, DBH3. mailako ikasleek tonbola eta pintxoak dastatzeko aukera jarriko dute ikastolaren

- **17:00etatik 19:00etara.** Argazki eta eskulanean erakusketak ikusgai eraikineko 3. solairuan.
- **18:00etan.** Pailazoak Txermingo eraikinean.
- **18:15ean.** Ikasle eta gurasoen-tzakoko jokoak.
- **19:30ean.** Afari merienda. Ondoren, tonbola egingo dute eta bukatzeko, musika izango da Txermingo eraikinean.

festan. Bertan lortzen duten dirua, ikasturte amaierako bidaia finantzatzeko erabiliko dutela jakinarazi dute.

Tonbolari dagokionez, zozketa 19:30ak aldera egingo litzateke, ikasle eta gurasoen arteko jolasak amaitzen direnean, hain zuzen ere.

Lau onenak oholtza gainera igoko dira gaurko finalean

Asvinenearen VI. Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren maila «altua» izan dela esan dute antolatzaileek

A. Imaz Aduna

Gaur amaituko da IV. Poltsikoko Antzerki Lehiaketa, Adunako Asvinenearen egoitzan. Lau onenak iritsi dira finalera, ikusleen eta epaimahaiaren iritziz. Mutandus Russum *Tarta-taratata!* lanarekin; Compañía la que tu me haces teatro *El pan nuestro de cada día damoslo hoy* obrarekin; Tik Tak *Zoriontasun itsua* antzezlanarekin, eta Aldatzen laguntzen *Pazo o no pazo* lanarekin.

Finala 22:30ean hasiko da arte eszenikoen laborategian, eta antzoki magikoko atek 22:00etan zabalduko dituzte Asvineneako artista gonbidatuak. Ane Miren kontorsionista eta Xiura akroba-

zia taldea izango dira, azken hauek Asvineneakoan sortuak dira, gainera.

Maila altua

Poltsikoko lehiaketa hasi zenetik sei saio jokatu dira. Kanporaketaz-kanporaketa aurrera egin dutenak lau talde bakarrik izan diren arren, Asvineneatik azaldu dutenez, «aurten maila altuko lehia ikusi da; askok merezi zuten finalean egotea, baina epaimahaiak eta ikusleek lau hauen aldeko aukera egin dute».

Iragan ostiralean azken finalerdia jokatu zen, eta hemen ere, erabakia hartu behar zutenak, ez zuten lan erraza eduki. Mutandus Russum-ek Italiako monje baten ikuspuntua taularatu zuen, pekatu kapitalen harira. Compañía, la que tu me haces-ek, aldiz, deabrua barnean edukitzea zer den azaldu zuen. Epaimahaiak lan hau txalotu zuen gehien, eta ikusleak, Italiako monjearen aldeko botoa eman zuen, ohi bezala, gau magiko batean.

Behar Zana Pilota Elkartearen asteburua

Elkartearen jaia ospatuko dute bihar eta etzi; bazkide eta herritarrentzat antolatuko dute jaia

A. Imaz Amasa-Villabona

Behar Zana Pilota Elkarteak urteroko jaia egingo du bihar eta etzi. Bazkide eta herritarrentzat egitarau oparoa antolatu dute Behar Zanako kideek, eta larunbatean egun guztiko jaia egongo da Villabonan, 09:30etik aurrera.

Ospakizunen artean, 10:30ean, pilota eskolako arteko finalak jokatuko dira: Aner Mendez eta Julen Lertxundi Ekhi Arrieta eta Eñaut Aranbururen aurka lehiatuko dira aurre benjaminetan; Xabar Unzue-Unai Arrieta bikotea, Maddi Urdanpilleta-Aner Carreroren aurka benjaminetan, eta Kepa Aizpurua-Aner Gomez, Jokin Aranburu-Cristofer Daguerren aurka alebinetan.

Bestalde, Patxi Alkortaren omenaldiko DVDa salgai dagoela azaldu dute elkartetik; Behar Zanan eta Irrintzin jarri dituzte zere-rendak, hilaren 30a bitarte.

↓ Egitaraua

EKAINAK 2, BIHAR

- **09:30ean.** Xake Txapelketa Behar Zana Elkartearen.
- **10:30ean.** Pilota eskolako finalak, aurre benjamin, benjamin eta alebin mailan.
- **17:00etan.** Joko garbiko partidak plazan. Eguraldi txarra egiten baldin badu, Behar Zana frontoian.
- **18:00etan.** Buruhandiak.
- **19:00etan.** Hildako elkarkideen aldeko meza.
- **20:00etan.** Bazkideen afaria, elkartearen.
- **23:15ean.** Behar Zanako danborrada. Eguraldi txarreakin Berdura Plazan.
- **Ondoren.** Jai giro aparta elkartearen, Incansables txarangearekin.

EKAINAK 3, ETZI

- **09:00etan.** Diana, Loatzo musika eskolaren eskutik.
- **11:30ean.** Errebote partidak. Eguraldi txarreakin frontoian.
- **14:30ean.** Bazkaria Behar Zana Elkartearen.

Egin HITZaren harpidedun
apirilaren 3tik ekainaren 1era,
eta jaso



Ekain sagardoa
6 botilako
kaxa bana

hitza info

Bertako informazioari,
bertako produktuak

Lekeitioko Metrokua hotolean,
bi pertsonarentzako
asteburu baterako egonaldia
ZOZKATUKO DUGU

Harpidedun
egiten diren
guztien artean

Harremanetarako:
902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

‘Birakabareta’ ikuskizuna gaur, eta Dantzari Txiki Eguna bihar, Lizartzan

I. Terradillos Lizartza

Lizartzako kulturastea ari da pixkana amaierara ailegatzen. Atzokoan, Joanes Gibelalde tolosarrak Tolosatik Argentinako Tolosara bizikletaz eginiko zeharkaldia kontatu zuen ikusentzunezko baten bidez. Gaurkoan, gaztetxoei zuzendutako arratsaldea izango da. 17:00etan, txokolata hartuko dute haurrek, eta ondoren, Ibon magoak eskainiko du ikuskizuna plazan. Euria egingo balu kultur gunean izango da magia saioa. Gauean, berriz, Intujai taldearen eskutik, *Birakabareta* ikuskizuna izango da kultur gunean. Magia, clown eta malabaren saioek osatuko dute emanaldia. Argazki lehiaketako irabazleen izena ere emango dituzte jakitera.

Bestalde, bihar Lizartzako III. Dantzari Txiki Eguna izango da aparkalekuan 10:30ean hasita. Arratsaldean, 16:30ean, Udaberriko Pilota Topaketak izango dira eta 19:00etan kantu poteoarekin hasiko dira.

‘Eko’ markaren inguruko mahai ingurua egingo dute Ibarra, astelehenean

I. Terradillos Ibarra

Ingurumenaren eguna izango da ekainaren 5ean, eta egun horren harira Tolosaldean hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ibarren kasuan, astelehenean *Eko etiketarik haratago, benetako iraunkortasun baten bila* izenburupean mahai ingurua egingo dute, kultur etxean, 19:00etan hasita. Mahai inguruan *Eko* markaren inguruan ariko dira solasean Iraitzi Agirre (Bagara), Kimetz Munitxa (Bide, ubide eta portuetako ingeniaria), Maider Aramendi (Ebel, ekofeminismoa) eta Patxi Gaztelumendi (EHNE Bizkaia).

Bestalde, asteartean, 11:30etik 13:00etara, txakur kaken inguruko sentsibilizazio kanpaina burutuko dute Uzturpe ikastolako 9 eta 10 urteko ikasleek. Txakurren jabeak kontzientziatu eta herri garbia eta txukuna lortzeko helburuz, Ibarra kaleetan zehar txakur kakak aurkitzen ariko dira, eta topatzen dituztenean, banderatoxoak jarriko dizkiete.

Txondorra piztuko dute astelehenean, Ixkibarren

Kultur Aroaren barruan Mendia, Kirola eta Abenturaren Zinemaldia eta Sagardo Eguna ere izango dira astean zehar

Iñigo Terradillos Leiza

Leitzako kultur aroa azken txanpan sartuko da datorren astean. Azoka egunaren ostean, astebeteko etena izan dute kultur ekitaldiek, baina datorren astelehenean larunbatera aukera polita izango da.

35. kultur aroaren berezitasun eta berrikuntzetako bat astelehenean egingo duten txondorraren piztea da. Ixkibarren egingo dute 18:00etan hasita. Antolatzaileek bazuten «kezka» moduko bat gai honen inguruan. Garai bateko ikazkin ofizioa, eta ikatza egiteko prozesua erakutsi nahi zuten herriari, txondorra piztuz. Gainera, inguruko hainbat herritan egin dutela ikusita, aurten ahalegina egitea erabaki dute. Hain zuzen ere, Goizueta da txondorra piztu

duten herrietako bat. Bada, bertan izan ziren leitzarrak nola pizten zuten ikasteko. Astelehenean Leitzan, Ixkibarren piztuko dute, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte ikuskizunaz gozatzera, eta garai bateko ofizioa ezagutzera. Hori bai, argi utzi dute, aurtengoa estreinako urtea izanik, saiakera dela, eta aurrera begira ikasten joango direla.

Halaber, aste honetan nabarmendu beharreko beste ekitaldia lehen aldiz egingo dute Mendia, Kirola eta Abenturaren Zinemaldia da. Peritzan izango dira filmak, asteartean, asteazkenean eta ostegunean, 20:00etan hasita.

IV. Sagardo Eguna

Kultur Aroari azken puntua Sagardo Eguna jarriko dio datorren larunbatean, ekainaren 9an. Laugarren urtez egingo dute urtetik urtera harrera beroagoa izaten duen ekitaldia. Herriko plazan izango da 19:00etatik aurrera, eta bertan hamaika sagardo dastatzeko aukera izango da, pintxoak janz, musika entzunez eta bertsoak adituz...

↓ Egitaraua

EKAINAK 4, ASTELEHENA

■ 18:00. Txondorra biztea, Ixkibarren.

EKAINAK 5, 6 ETA 7

■ 20:00. I. Mendia, Kirola eta Abenturaren Zinemaldia, Peritzan.

EKAINAK 9, LARUNBATA

■ 19:00. IV. Sagardo Eguna, plazan.

ERAKUSKETAK

■ **Aurreran.** Gran Paradiso argazkiak eta zeramika lanak daude jarrita.

■ **Atekabeltzen.** Saharar herritarren inguruko argazkiak eta Roberto Martinezen margolanak.

■ **Udaletxean.** Leitzarrek idatzitako liburua izango dira ikusgai.

Ia erabateko jarraipena hirugarren greba egunak

I. Terradillos Leiza

Nafarroako hezkuntzako sindikatuen gehiengoak deituriko hirugarren greba eguna izan zen atzokoa. Bada, aurreko bietan gertatu moduan, jarraipen nabaria izan zuen deialdiak Nafarroan bezala, Leitzaldean ere. Protesta horiek Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan ezartzeko asmoa duen murrizketak bertan behera gera ditzala dute helburu.

Leitzaldean ikastetxeetako irakasleen gehiengoak egin zuen greba, atzo. Amazabal institutuaren, esaterako, bost langile baino ez ziren azaldu lanera. Gainerakoan, gutxienezko zerbitzuak eskaini zituzten. Bada, bertatik adierazi dutenez, «Nafarroako Gobernuak ez du oraingo sindikatuekin izandako bileretan argi utzi duenez, hartu dituen erabakietan atzera egiteko inolako asmorik».

Ibarra herritar eta merkatarien iritziak jasotzeko foroak zabalik

Ekimena merkataritza biziberritzeko planaren barruan kokatzen da; herritar oro gonbidatu dute parte hartzera

I. Terradillos Ibarra

Ibarra Udalak, herriko Merkataritza Biziberritzeko Planaren barruan, herritarren eta merkatarien zein ostalarien ekarpenak jasotzeko helburuarekin, bi par-

taidetza foro jarri ditu martxan aste honetan. Bata herritarrentzat eta bestea merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu orokorretan lan egingo duten profesionalentzat.

Foro horietan, herritarrek eta merkatariei euren ideiak edo ekarpenak proposatu ahal izango dituzte. Udalak herritar eta merkatariek bertan parte hartzera gonbidatzen ditu, «Ibarra merkataritza eta jardueraren etorkizunarentzat garrantzitsua baita».

Bada, herritarrek www.ikeiforo.es/ibarra-herritarrek webgunean sartu beharko dute, eta merkatariek zein ostalariek www.ikeiforo.es/ibarra-merkataritza webgunean. Lehendabizi erregistratu egin beharko da, izena eta helbide elektronikoa jarrita. Behin hori eginda, esteka bat duen mezu bat jasoko dute erabiltzaileek. Esteka horretan sartu, eta webgunean iritziak eman eta ekarpenak egiteko moduan egongo da herritar oro.

o ibarraldea@hitza.info

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



EKAITZ KORTADI BURGUILLO

Beti izango zaitugu inoiz baino bertago, gure bihotz xokoan, gure lagun, gure babesle

Hibaika Arraun Elkarte



Errenteria-Oreoretan, 2012ko ekainaren 1a



21°
13°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	26°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketak, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. ■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. ■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112. ■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Leitza.** Plaza, M. T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!
Hodei Sagastibeltza Bengoetxea (Leitza). Bihar 2 urte. Urte askoz eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

Agenda

DEIALDIK

- **Lizartza.** Kultur astearen barruan, gaur, 17:00etan, txokolate jatea; 17:30ean, Ibon Magoaren emanaldia, plazan; 22:00etan Intujai antzerki taldearen *Birakabareta* ikuskizuna, kultur gunean; eta, ondoren, herriko argazki lehiaketako irabazleen izenak jakinaraziko dituzte. Bihar, 10:30ean, Dantzari Txiki Eguna-ri hasiera emango diote; 16:30ean, umeen Udaberriko Pilotak Topaketak; eta 19:00etan, kantu poteoa.
- **Larraul.** Eskola Txikien Festa igandean: 10:00etan suziria eta ondoren, egun guztian zehar, jokoak, musika eta abar egongo dira. Ekitaldi nagusia 13:00etan izango da, plazan.
- **Tolosa.** Napoleonen garaiko alardea igandean: 10:45ean, Nafarroako Zubira bisita gidatua egingo dute, 12:00etan hasiko da alardea, eta 13:00etan guduaren antzerkia egingo dute. Ondoren, bazkaria egingo dute.

JAIK

- **Anoeta.** Herriko jaiak: gaur, 22:30ean, herriko dantza taldearen emanaldia. Bihar Koadri-

len Eguna: 10:00etan herri kro-sa haur eta helduentzat, 12:00etan suziria, 14:00etan bazkaria, 16:30ean koadriren ar-teko jokoak, 19:00etan koadri-len poteoa, 21:00etan afaria, eta 23:30ean Bide Batez talde-aren erromeria. Igandean Dan-tzari Txiki Eguna: 10:00etan Ba-serritarren azoka plazan, eta Alegia, Ibarra, Irura, Tolosa, Vi-llabona eta Anoetako dantza taldeen kalejira, 11:30ean dan-tza emanaldia plaza txikian, 19:00etan kantaldia Oskorrir-ekin, eta ondoren, talo jatea.

MUSIKA

- **Tolosa.** Euskal Herria plazan dagoen Photokafen Photokafe Jazz Corner ekimena hasiko dute, gaur, Satxa Soriazu eta Jorge Abadiasen kontzertuare-kin. *Zuri* proiektua aurkeztuko dute.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidorren bihar, 20:30ean, Fermin Muguruzaren *Next music station: Lebanon* dokumentala. Lanaren aurkez-pena Garbiñe Ubedak, *Negu Gorriak: Ideia zabaldu Tour 95* liburuaren egileak, egingo du.

Igandean, Aste Berdearen ba-sarruan, *The wish fish*, 17:00etan, eta 19:30ean eta 22:00etan, *Miss Bala*. Astelehenean, ikus-learen egunean, *Miss Bala* ikusi ahal izango da 20:30ean.

ANTZERKIA

- **Aduna.** Poltsikoko Antzerki Lehiaketako finala, gaur, Asvi-nenean, 22:30ean. Mutandus

Russum taldearen *Tarta-tar-atta!*, Compañía la que tu me ha-cesen *El nuestro de cada día* *danoslo hoy*, Tik Tak taldearen *Zoriontasun itsua* eta Aldatzen Laguntzenen *Pazo o no pazo* la-nak ikusi ahal izango dira. Ane Miren bihurrikatzaileak eman-aldia eskainiko du, eta Asivenene-ako Xiura aire-akrobazia talde-ak ere bere azken lana, *Actitud*, aurkeztuko du.

Tolosa etxe adosatua salgai:
eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta frostelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakia.

Askaezazu irudimena zure DISEINATU

ceinpro
TITULAZIO OFIZIALAK

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN

Herriz Pasailekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • 943 310 873 • www.ceinpro.es

Elketa Jatetxea

Terrazaren irekiera ekainaren 1etik aurrera, barruko zerbitzu berberarekin.

San Miguel bailara, 2 • Hernialde
943 65 21 16 • elketajatetxea@hotmail.com
www.elketa.com